



27/2002 GOMENDIOA, EKAINAREN 17KOA, BILBOKO UDALARI EGINA, GURASO BATEK BERE SEME-ALABA ADIN TXIKIKOEN GURASO-AGINTEA BALDIN BADU, ERROLDAN HAI EI BURUZ DUTEN INFORMAZIOA EMAN DIEZAIOTEN, KONTUAN HARTU GABE HAURRAK BERAK ZAINDU ETA JAGOTEN DITUEN ALA EZ.

Aurrekariak

1. Kexagileak Arartekoarengana jo zuen Bilboko udalaren kontra kexa bat azaltzeko, bere seme adin txikikoaren errolda-agiria ukatu baitzioten. Ez zegoen konforme zegokion azpisaileko buruak eman zizkion arrazoiekin, izan ere, hark adierazi zion banantze edo dibortzio kasuetan, epailearen erabakiz adin txikikoak zaindu eta jagoteaz arduratzen den gurasoari dagokiola errolda-kontuetan haien izenean aritzea, eta kasu horretan ez zen hala gertatzen.

Interesdunaren ustez, udal erabaki horrek arrazoirik gabe mugatzen zuen guraso-aginteak berekin dakarren aginpidea, bada haurraren zaintza amari ematen dion epai berean adierazten da bi gurasoek dutela guraso-agintea.

2. Erakunde honek bidezko jo zuen udal horri azaldutako gaiari buruzko informazioa eskatzea. Bizkor eta arrazoi bidez erantzun digu udalak, eta interesdunak berak Hiritarrekiko Harremanen Zerbitzuan aurkeztu zuen erreklamazioa zela-eta bideratu den espedientearen kopia bat igorri digu.

Erroldaren arduraduna gai hori arautzen duen araudian oinarritzen da kexagileak eskatutako informazioa ukatzeko, eta, zehazki, toki-erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamenduaren 54.2 eta 68. artikulua aipatzen ditu (2612/1996 Errege Dekretua, abenduaren 20koa; hemendik aurrera, BLME), eta baita ere Estatistikako Institutu Nazionalako buruak eta Lurralde Lankidetzarako zuzendari nagusiak 1997ko uztailaren 4an hartu zuten Erabakiaren hainbat atal. Erabaki horretan, udal errolda eguneratzeko jarraibide teknikoak ematen zaizkie udalei.

Halaxe da, testu horren 2. atalean adierazten denez, banantze edo dibortzio kasuetan, errolda-kontuetan, adin txikikoaren zaintza eta jagotea bere gain duen pertsona arituko da haien izenean, eta egoera hori egiaztatu beharko du, epailearen erabakiaren kopia baten bidez.



3. Argudio juridiko horiek -udal zerbitzu horrek aipatu araudiaz egindako interpretazioaren arabera- justifikatzen dute kexagileari informazioa ukatzea; horrez gain, kexagilearen eskaera onartuko balitz sor litezkeen beste arazo batzuk azaltzen ditu Biztanleria azpisaileko buruak: bananduta dagoen eta beste etxe batean bizi den aita bati bere seme adin txikikoaren errolda-agiria emanaz gero, haurraren zaintza eta jagotea haren emazte izandakoak duelarik, bere emazte ohiaren helbidea ematen ari zaio senar ohiari, zeharka bada ere.

Halaber, kasu zehatz honi dagokionez, beste arrazoi hau ere ematen du: kexagilearen emazte izandakoa dela bere errolda-datuak eskuratzeko bidezko interesa duen pertsona bakarra. Horregatik, interesdunari adierazi zioten bere seme adin txikikoa zaindu eta jagoteko ardura berak zuela egiaztatzerik ez bazuen, haurraren amaren baimena aurkeztu behar zuela umeari buruzko informazioa lortzeko.

Ildo berean, kexagileak errolda-agiria ikastetxe batean umearen matrikula-aurrekoa egiteko behar zuela azaldu zuenez, azpisaileko buruak dio horretarako umearekin bizi den gurasoaren egiaztagiria bakarrik balio duela, hau da, amarenak, eta, hortaz, amak edozein momentutan eman lezakeela, baldin eta biek duten guraso-agintea erabiliz, aitak eskatutako matrikula-aurrekoarekin ados balego. Arrazoiketa horretatik ondorioztatzen da, antza, zerbitzuburuaren ustez bi gurasoen artean desadostasuna egon daitekeela umea zein ikastetxetara bidali erabakitzerakoan, eta erabaki hori haurraren zaintza bere gain duen gurasoari dagokiola ulertarazten du.

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, argi adierazi behar da ezen, Arartekoaren iritziz, zentzuzkoa dela eta arrazoi sendoetan oinarritzen dela udal horren Biztanleria azpisaileko arduradunak azaldutako jarrera. Hala ere, erakunde eskubide-bermatzaile honek uste du zerbitzu horrek modu zabalegian ulertzen duela jarraibide teknikoan 2. atala (97-07-04ko Erabakia). "Errolda kontuetan", adin txikikoaren izenean arituko den pertsonari buruzko xedapenak mugatu egiten du guraso-agintea berekin dakarren aginpidea, haurraren zaintza ez duen gurasoari dagokionez. Horregatik, xedapen horren interpretazioak murriztailea izan behar du, eta hitzez hitzeko kasuetan bakarrik erabili behar da.

Bestalde, aintzat hartzekoak iruditzen zaizkigu, orobat, zenbait kasutan sor litezkeen arazoak, umearen errolda-agiritik, ezinbestean, amari buruz lortzen



den informazioaren ondorioz. Begi-bistakoa da familia hautsi den egoera batzuetan, interes kontrajarriak sor daitezkeela: batetik, umeekin bizi ez, baina guraso-agintea duen gurasoak umei buruzko informazioa lortzeko eskubidea du; eta bestetik, umeak zaintzen dituen gurasoak bere intimitatea babesteko eta bere datuak isilean gordetzeko eskubidea du. Bidezko interesak kontrajartzen diren edozein egoeratan bezalaxe, tentuz aztertu behar da egoera, konponbide orekatua lortzearren, kontrajarrita dauden jarreretako bat bestearen mesedetan guztiz baztertua gera ez dadin.

Nolanahi ere, egoera gatazkatsuak agertzeak ez du esan nahi gehienetan hala gertatzen denik, eta, beraz, ezta ere hori oinarritzat hartu behar denik banantze kasu guztietan erroldarako jarduera-irizpideak finkatzerakoan.

2. Lehen aurreratu dugunez, jarraibide teknikoan 2. atalak (97-07-04ko Erabakia) zera dio "Ordezkaritza" izenburupean, adin txikikoen ordezkari dagokionez, Zuzenbide Zibilaren arau orokorrak daudela indarrean, eta jarraian hauxe argitzen du: "*banantze edo dibortzio kasuetan, adin txikikoen ordezkari izango da, errolda kontuetan, umearen zaintza eta jagotea bere gain duen pertsona.*"

Kode Zibilaren 154.2 eta 62. artikuluen arabera, guraso-agintearen eskumenen artean, seme-alaba adin txikikoen ordezkari izatea dago. Hori kontuan izanik, agerikoa dirudi transkribatu berri dugun xedapenak zeregin hura mugatzen duela. Alabaina, ez da guraso-agintearen murrizpen arrazoi gabea, aitzitik, guztiz zentzuzkoa da haurraren zaintza bereganatu duen pertsonak bakarrik aldatu ahal izatea haren errolda-datuak, pertsona horren helbideak baldintzatuko baitu adin txikikoaren auzotasuna (BLMEren 54. artikulua).

Izan ere, kontuan hartzen bada zer ezberdintasun dagoen -Kode Zibilaren 92. artikulua onduz- guraso-agintearen jabe izatearen eta aginte hori erabiltzearen artean, esan liteke "*errolda kontuetan*" ordezkari izateak lotura handiagoa duela agintea erabiltzearekin, agintearen jabe izatearekin baino. Egiaz, BLMEren 54. artikulua zaintza eta jagotearekin lotzen du adin txikikoen auzotasuna -eta, beraz, horien erroldatzea-, eta, areago, benetako bizikidetasunarekin berarekin. Horregatik arautzen da modu berean alor horretako ordezkariak. "*Errolda kontuetan*" legezko esapidearen esanahia argitzeak sortzen du arazoa.



Horren testuinguruari begira, nabarmena dirudi jarraibideen 2. atala errolda eratzeari dagokiola, hau da, erroldan izen emateari eta bertan agertzen diren datuak aldatu edo zuzentzeari. Normala denez, halako kontuetan -"ondorio horietarako"- semea edo alaba zaintzen duen eta harekin bizi den pertsonak bakarrik esku har dezake. Baina, aldiz, ez da gauza bera gertatzen erroldaren edukiari buruzko informazioa lortze hutsari dagokionez.

Gai hau jarraibideen 6. atalean jorratzen da, "Erroldatze-ziurtagiria eta bolantea" deritzanean. Bolante horren helburuak argitu ondoren -erroldatzearen eta horren inguruko zertzeladen berri ematea, baina ez ziurtatzea-, araudiak dio informazio hori bidezko interesa dutenei soilik eman behar zaiela. Horrela, nabarmena dirudi adin txikiko baten guraso-agintea duenak hari buruzko informazioa lortzeko bidezko interesa duela. Haatik, erakunde honen ikuspuntutik, ez da zuzena gaia ikuspegi horretatik aztertzea. Izan ere, bolante bat eskatzean, gurasoak ez du jarduten interesduntzat jo daitekeen hirugarren pertsona baten moduan; egiaz, gurasoak bere ondorengoaren izenean jarduten du, hark ez baitu horretarako ahalmen juridikorik. Bolantea haurrak -alegia, *auzokideak berak*- eskatzen duela uler liteke, eta berak bere kabuz egin ezin duenez, bere legezko ordezkariaren bitartez jarduten duela.

Horren gainean, zera nabarmendu nahi dugu: informazioa eskuratzeari buruzko atal horretan, ordezkaria bakarrik aipatzen da jarraibideetan -legezkoa edo boluntarioa-, baina ez dira bereziki aipatzen ezkontza-haustekak. Izan ere, alor horretan ez bailuke inolako zuribiderik izango guraso-aginteari datxezkion eskumenak oro har murrizteak.

Laburbilduz, onartu beharra dago bere seme-alaba adin txikikoekin bizi ez den gurasoak haiei buruzko informazioa lortzeko eskubidea duela, guraso hori auzokide adin txikikoaren legezko ordezkariatzat jotzen delako, edota guraso-agintea izatearen ondorioz seme-alabak zaindu beharrak -bere ondorengoaren errolda kontuei dagokienez- guraso hori bidezko interesduntzat bihurtzen duela ulertzen delako.

3. Aurreko baieztapenak gorabehera, kasu batzuetan jarduera-arau horrek arazoak sortuko lituzkeela egiaztatu da. Lehen adierazi dugunez, gerta liteke aurrez aurre ipintzea adin txikikoaren zaintza ez duen gurasoaren informazioarako eskubidea eta haurra zaintzen duen gurasoaren pribatutasuna.



Agerian jarri behar da egoera gatazkatsu hori ez doala senar-emazteak banantzeari atxikia, eta ez dela ohizkoa ere; aitzitik, aparteko kasuetan bakarrik gertatuko dela, nahiz eta -tamalez- kasu horiek nahiko litzatekeen baino sarriago gertatzen diren. Banantze kasu gehienetan, seme-alabekin bizi ez den gurasoak jakiten du haiek non bizi diren, beste arrazoi batzuen artean, askotan familiaren etxea izandakoan bizitzen jarraitzen dutelako. Horixe gertatzen da, antza, kexa-espeditente hau sortarazi duen kasuan, bada 2001-10-05eko Epaiak amari eta seme adin txikikoari ematen dio familiaren etxebizitza erabiltzeko ahalmena (Epaiaren 4. atala). Hala ere, amak etxebizitza aldatzen duenean ere, aitik haren berri izatea da normalena, baldin eta bere ondorengoak ikusteko eskubidea badu eta eskubide hori erabiltzen badu.

Beraz, interesak honako kasuotan soilik jarriko lirateke aurrez aurre: hurrekin bizi ez den gurasoak haiek ikusteko eskubiderik ez duenean, edo beste norbaitek ikuskatuta eta toki "neutraletan" bakarrik ikus ditzakeenean, eta baita emakumearentzat edota seme-alabentzat indarkeriarako edo tratatu txarrerako arriskua dagoenean -kasuok eta aurrekoak askotan biak batera gertatzen dira-. Argi eta garbi ikusten da kasu horiek larriak direla, eta, era berean, horietan lehentasuna eman beharko litzaiokeela emakumeak bere datuak ezkutuan gordetzeko duen eskubideari. Hala eta guztiz ere, jarduteko irizpide orokorra ezin da salbuespenezko kasuetan oinarritu. Ez dirudi onargarria banatuta dauden guraso guztien eskubidea murriztea, horietako batzuek beren bikotekide ohiarentzat egoera gatazkatsuak eta, areago, arriskutsuak sortzen dituztelako.

Alabaina, kasu gatazkatsuak salbuespenak direla onarturik ere, begi-bistakoa da neurriak hartu behar direla bere helbidea senar ohiari ezkutatu behar dion emakumearentzat sortuko liratekeen ondorio kaltegarriak eragozteko. Udal horri dagokio badaezpadako neurri egokienak eta eraginkorrenak zeintzuk diren aztertzea eta erabakitzea, baina erakunde honek zenbait gogoeta helarazi nahi dizkizu, xede hori lortzen laguntzeko ahaleginean:

Gure ustez, ez dago arazorik haurrak zaindu eta jagoten dituen gurasoak familiaren etxebizitza izandako hartan bizitzen jarraitzen duenean. Informazio hori eskura dauka udalak, epaian bertan adierazten delako, edo familiaren helbidea utzi duena beste gurasoa dela egiaztatzen delako artxiboan.

Gainontzeko kasuetan, hau da, senar-emazteak banatu ondoren emakumeak eta bere umeek bizitokia aldatzen dutenean, emakume horri senar ohiak



informazioa eskatu duela jakinaraz lekiok, eta arrazoizko epe bat eman, adieraz dezan ea senar ohiak ama-umeak non bizi diren badakien, eta, ez badaki, hark eskatutako informazioa ukatzeko arrazoirik ba dagoen. Ukapena bidezkoa izateko, alegatutako arrazoiak objektiboak izan beharko lukete (adibidez, seme-alaba adin txikikoak ikusteko eskubiderik ez izatea edo eskubide mugatua izatea, mehatxu edo tratu txarrei buruzko salaketak edo aurrekariak izatea, e.a.).

4. Azkenik, aurrekarietan adierazi dugunez, ondorio hau atera daiteke errolda-arduradunak kexagilearen kasu zehatzaz emandako arrazoiaren gainean: seme adin txikikoarentzako ikastetxea aukeratzekoan gurasoak ados ez baleude, amari legokiokeela erabakitzea eta errolda-agiria nahi duen ikastetxera eramatea.

Gure iritziz, zinegotzi delegatuari 2002-04-25ean bidalitako txostenaren 5. atalean agertzen den arrazoiketa inplizituki hori balitz, Biztanleria azpisaila, neurri batean, bere eginkizunen mugak gaintzen arituko litzateke. Gogoan izan behar da garrantzizko gai batzuetan gurasoak ados jarri ezin direnean, Kode Zibilak (156. artikulua) prozedura bat ezartzen duela, epaileak erabaki dezan bi gurasoetatik zeini dagokion erabakia hartzea. Hortaz, kexagilearen eta adin txikikoaren amaren artean gatazkarik balego ere -ez dakigu hala denentz-, egoera hori ezingo litzateke hark eskatutako informazioa ukatzeko argudiotzat erabili.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

27/2002 GOMENDIOA, ekainaren 17koa, Bilboko udalari egina

Udal horren Hiritarrekiko Harremanen Zerbitzuak eman diezaiola kexagileari eta, oro har, hala eskatzen duten guraso guztiei, beren seme-alaba adin txikikoei dagokien errolda-agiria, betiere umeekiko guraso-agintea baldin badute, nahiz eta haiek zaindu eta jagon ez. Baldin eta seme-alabekin bizi ez den gurasoak umeak beste gurasoarekin non bizi diren ez badaki, eta azken honek datu hori ezkutuan mantentzeko arrazoi objektiboak badauzka, kasu horiek arestian aipaturiko arau orokorraren salbuespentzat joko dira.